

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2009	A1/2015	2015-06-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Arbitraje Batzordearen R8/2012 Ebazpenaren gauzatze-gertakaria

A 1/2015 (R 8/2012)

16/2009 Espedientea

Gasteizen, 2015eko ekainaren 19an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Kontzertu Ekonomikoko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

ERABAKI DU

2015eko urtarrilaren 19an erregistratutako idazkiari dagokionez. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Arbitraje Batzordeak 16/2009 espedientea duen 2012ko uztailaren 2an emandako 8/2012 Ebazpenaren gauzatze-gertakaria aurkeztu du, Foru Aldundi berak Estatuko Administrazioaren aurrean aurkeztutako gatazkan. Hori Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 1. ERAKUNDEA, S.A. erakundearekin gauzatutako jardueren inguruan Foru Aldundiak dituen gaitasunei buruzkoa da, eta Gabriel Casado Ollero jaunak jarduten du txostengile gisa.

I. AURREKARIAK

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza foru-diputatuak adierazten du idazkian, aipatutako gatazkan, «Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren jardura administratiboak (bai eta Gipuzkoako Foru Ogasunekoak ere) nola gauzatu behar ziren aztertu zela, 1. ERAKUNDEA, S.A., 2. ERAKUNDEA S.L. eta 3. ERAKUNDEA, S.A. erakundeen artean gauzatutako eragiketak balioztatzeko garaian. Guzti hori aipatutako sozietate guztiak lotuta daudelako, eta horietako lehena estatuaren ikuskapen-eskumena duelako. Beste biak, aldiz, foru ikuskapen-eskumena dute». Gipuzkoako Foru Aldundiak gogoratzen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2009	A1/2015	2015-06-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Arbitraje Batzordearen R8/2012 Ebazpenaren gauzatze-gertakaria

du, «lotutako erakundeak direnean, bi aldeko doikuntza aplikatuta, (estatu-
eskumeneko) erakundeetako baten erregularizazioak eragin zuzena duela
(foru-eskumeneko) bestean» eta «nahi ez diren eraginak eta alde bat kaltetzea
saihesteko, Arbitraje Batzordeak honako hau erabaki zuela hitzez hitz:

«Aitortzen da Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eta Gipuzkoako
Foru Aldundiak 1. ERAKUNDEA, S.A. (IFZ A----) eta horri lotutako 2.
ERAKUNDEA S.L. (IFZ B----) eta 3. ERAKUNDEA (IFZ A----) erakundeen
artean gauzatutako eragiketen balioespenari buruzko informazioa
trukatzeko betebeharra dutela, bai eta, fede onez eta lankidetzaz-
espirituarekin, izan ditzaketen desadostasunak konpontzeko ahalegina
egiteko betebeharra ere, erakunde horien multzoan gehiegizko zerga
saihesteko».

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazten du, Arbitraje Batzordeak aipatutako
8/2012 Ebazpena eman zuenetik, honako gertaera hauek izan zirela:

a) Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren albiste-falta zela eta,
Gipuzkoako Foru Aldundiak Foru Ikuskaritzak 2012-12-18an gauzatutako
balioespen-proposamena bidali zion 2014-01-3an. Bertan jakinarazi zuen,
proposamen hori «Arbitraje Batzordearen ebazpena betez eta aurrea
hartuz (...) gauzatzen dela; izan ere, gaur egun, Aldundi honetan ez dago
Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Ekonomia Itunaren Arbitraje
Batzordeak eskatutako gerturatzea proposatzen duela aditzera ematen
duen inolako dokumenturik». Ondorioz, «Agentziaren ekintza-faltaren
aurrean eta Administrazioen arteko lankidetzaz-printzipioari jarraiki (...),
Gipuzkoako Foru Ogasuna Zerga Administrazioko Estatu Agentziari
gerturatzen zaio, arazoa elkarren artean konpontzeko».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2009	A1/2015	2015-06-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Arbitraje Batzordearen R8/2012 Ebazpenaren gauzatze-gertakaria

b) Erantzun gisa, 2014-05-13an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak dokumentazio osagarri zehatza eskatu zuen. Foru Ogasunak berehala bidali zion hori, 2014-05-23an.

c) Albiste-falta zela eta, Foru Ikuskaritzak erantzuna eskatu zuen berriz 2014-09-24an eta, berriro, 2014-11-12an.

d) Foru Ogasunak gauzatutako lankidetzaren eskaintza guztiei jaramonik egin gabe, 2014-12-19an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 4. ERAKUNDEA, S.A. erakundearekin (1. ERAKUNDEAREN ondorengoa) 2014-11-20an sinatutako hitzarmen-akta bidali zion. Bertan adierazten zuen hori «Euskadiko Arbitraje Batzordearen 8/2012 Ebazpena betez» bidaltzen zutela.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ustez, «Zerga Administrazioko Estatu Agentziak zergadunarekin adostutako erregularizazioaren ondorioz, Gipuzkoako Foru Ogasuna guztiz kaltetuta gertatzen da. Izan ere, erregularizazioa eragindako erakundearen kreditu fiskalen kontura gertatzen da, eta bi aldeko doikuntzaren aplikazioak Gipuzkoan sartutako kuoten itzulera ekarriko luke, horiei dagozkien berandutze-interesekin, zerga-oinarri negatiboaren gehikuntzarekin eta kreditu fiskalen gehikuntzarekin (...), Foru Ogasunak proposamen horrekiko inolako alegaziorik egin ezinda. Gipuzkoako Foru Aldundiak galdetzen du: Hori al da, fede onez eta lankidetzaren-espírituarekin, izan litezkeen desadostasunak konpontzen saiatzea, Arbitraje Batzordeak bere Ebazpenean eskatu bezala?»

Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak argudiatzen du, Arbitraje Batzordearen ebazpenak ezin dituztela gatazkako alderdi interesdunek bete edo ez bete eta, bere ustez, «kasu horretan, Arbitraje Batzordearen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2009	A1/2015	2015-06-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Arbitraje Batzordearen R8/2012 Ebazpenaren gauzatze-gertakaria

ebazpena ez betetzeaz gain, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ez dio utzi Gipuzkoako Foru Aldundiari ere hori betetzen; izan ere, (...) aipaturako ebazpenak ez du alderdietako bat soilik zerbait egitera behartzen; aldiz, biak behartzen ditu, Zerga Administrazioko Estatu Agentzia eta Foru Ogasuna, informazioa partekatzerara eta fede onez jardutera. Jakina, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Foru Ogasunari akta sinatu ondoren bidaltzea ez da Arbitraje Batzordeak esan nahi duena, informazioa partekatzea aipatzen duenean».

Idazkia amaitzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak Arbitraje Batzordeari eskatzen dio onartzeko eta, horri jarraiki:

«1.- 2014ko azaroaren 20an Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 4. ERAKUNDEA, S.A. erakundearekin sinaturako hitzarmen-akta baliogabetzea agintzea.

2.- Jardueren atzeraeragina agintzea, aipaturako aktaren sinaduraren aurreko une batera.

3.- Zerga Administrazioko Estatu Agentziari gogoraraztea Gipuzkoako Foru Ogasunarekin informazioa partekatzeko betebeharra duela gai horretan, aktak ireki aurretik, bai eta fede onez eta lankidetz-espirtuarekin saiatu behar dela euren arteko desadostasunak konpontzen.

4.- 2012ko uztailaren 2ko ebazpenaren gauzatze-formula zehatza adieraztea.»

3.- 2015eko urtarrilaren 26ko saioan, Arbitraje Batzordeak erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza foru-diputatuaren idazkia

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2009	A1/2015	2015-06-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Arbitraje Batzordearen R8/2012 Ebazpenaren gauzatze-gertakaria

onartutzat jotzea, eta hori zein erantsitako dokumentazioa Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari bidaltzea, hamabost eguneko epean, dagozkion alegazioak egiteko.

4.- 2015eko otsailaren 23an prestatutako eta otsailaren 27an erregistratutako idazkiaren bidez, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren zuzendari nagusiak alegazio-idazkia aurkeztu zuen. Horren edukia termino hauetan laburbildu daiteke:

a) Aurretik, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak adierazten du «Gipuzkoako Foru Aldundiak gauzatze-gertakaria Arbitraje Batzordearen aurrean sustatzen zuen aldi berean eta modu paraleloan, aipatutako Foru Aldundiak Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari azaroaren 29ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan aurreikusitakoaren errekerimendua bidali diola. Lege horrek Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa erregulatzen du eta, errekerimenduan, Batzordearen aurrean izapidetutako gauzatze-gertakarian eskatutako bera eskatzen da, zehazki». Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren ustez, «Gipuzkoako Foru Aldundia bi inpugnazio-bide erabiltzen ari da batera. Argi eta garbi, hori onartezina da, horrek sustatutako gauzatze-gertakaria ebazteke dagoelako. Ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiak hasitako inpugnazio-bideetako bat hautatu beharko luke, sustatutako gertakaria berretsita edo amore emanda, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari zuzendutako Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren aurreko administrazioen arteko errekerimenduan».

b) Jarraian, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak «Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako gauzatze-gertakariaren» (lehen alegazioa) terminoak laburtzen ditu, bai eta Arbitraje Batzordearen 8/2012 Ebazpenarenak ere. Azken horretan, aztertzen da Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak 1. ERAKUNDEA, S.A. erakundearen eta Foru

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2009	A1/2015	2015-06-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Arbitraje Batzordearen R8/2012 Ebazpenaren gauzatze-gertakaria

Aldundiaren ikuskapen-eskumenaren menpe dauden bi zergapekoen arteko eragiketa jakin batzuen inguruan gauzatutako merkatu-balioaren egiaztapen-prozeduran Gipuzkoako Foru Aldundiak «parte hartzeko» duen eskubidea. Era berean, horretan, hainbat Zerga Administrazioen ikuskapen-eskumenaren menpe dauden lotutako erakundeen arteko eragiketen balorazioari buruzko arau-hutsunearen existentzia nabarmentzen da (OD. 10). Oinarri berean adierazten da «Barne-eremuko transferentzien prezio-doikuntzei buruzko Zerga Administrazioen arteko eztabaiden behin betiko konponketek legearen bidezko konponbideak hartzea eskatuko luketela (...)».

c) Aipatutako 8/2012 Ebazpenean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren parte-hartze eskubidearen inguruan egindako mugaketari dagokionez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak jakinarazten du Arbitraje Batzordeak Ekonomia Itunaren printzipio orokorretara eta nazioartean aurreikusitako prozedura lagunkoietara jotzeko beharra aitortzen duela, «Itunaren 2. artikuluan izaera orokorrekarekin aurreikusitako laguntzeko eginbehar zehatza errepikatzeke. Horren helburua modu independentean lotutako eragiketak baloratzean izango litzatekeen ezarpen bikoitza saihestea da. Sozietateen gaineko Zergaren Legearen eta Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 16.1.2 artikulua zehazki debekatzen du ezarpen bikoitz hori (Alegazioen 7. orrialdea). Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eranstean du Arbitraje Batzordeak Gipuzkoako Foru Aldundiaren «parte-hartze» eskubidearen irismena mugatu zuela 8/2012 Ebazpenaren 8 eta 10 Zuzenbideko Oinarrietan, baina «jarraitu beharreko momentu eta prozedura zehatzak adierazi gabe (...), eta ezerk ez du adierazten lankidetzaren ikuskaritza-prozeduraren amaieraren AURRETIK gauzatu behar denik. Aldiz, nazioarteko prozedura lagunkoien erreferentziak pentsarazten du lankidetzaren ONDOREN egin daitekeela, ezarpen bikoitza saihesteko Espainian egindako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2009	A1/2015	2015-06-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Arbitraje Batzordearen R8/2012 Ebazpenaren gauzatze-gertakaria

Hitzarmenetan, zein Arbitrajearen Erkidegoko Hitzarmenean jaso bezala (90/435/CEE Elkartutako enpresen etekinen zuzenketa-kasuan ezarpen bikoitza kentzearen inguruko Hitzarmena)». Gainera, eransten da, aurretik lankidetzak sakona garatu nahi izateak ikuskaritza-jarduerak amaitzeko epearen betearazpena arriskuan jartzea eragingo lukeela, zalantzarik gabe.

d) «8/2012 Ebazpenetik ezin da izapide edota prozedura-mugarri zehatzik ondorioztatu; izan ere, ez dago aurreikusita Ekonomia Itunean, ezta estatuko zein foru-araudian ere». «Arbitraje Batzordearen arabera, parte-hartzea informazioa partekatzeko, kontsultatua eta entzuna izateko, eta baztertua ez izateko eskubidea bezala ulertu behar da baina, inola ere, beste alderdiari irizpide jakin bat edo adostasun batera iristeko betebeharra ezartzeko eskubide bezala (...). Era berean, ezin da lankidetzak hori erregularizazioaren «eragin» ekonomikoa ez jasateko eskubidea bezala interpretatu; izan ere, lotutako eragiketen edozer balioespen-hitzarmenean, aurkako bi doikuntza izango dira: bat alderdi baten «aldekua» izango da, eta besteak beste alderdia «kaltetuko» du».

Gainera, Itunaren ikuskaritza-eskumenaren banaketa kontuan izanda, «Administrazio eskudunak gauzatutako erregularizazioak dituzten eta Administrazio fiskal ezberdinaren ikuskaritza-eskumenaren menpe dauden zergapekoekiko ondorioak dituzten beste kasu batzuk daude. Adibidez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren (edo Foru Administrazio baten) ikuskaritza-eskumenaren menpeko sozietatean jasanarazitako BEZ doikuntza gauzatzen denean. Kasu horretan, doikuntza egin behar da doitutako eragiketaren hartzailea den sozietateak jasandako BEZ kuotetan, sozietate hori sortutako BEZ egiaztatu zuenaren ezberdina den Administrazioaren ikuskaritza-eskumenaren menpe badago ere. Era berean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen Testu Bateginaren

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2009	A1/2015	2015-06-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Arbitraje Batzordearen R8/2012 Ebazpenaren gauzatze-gertakaria

15. eta 17. artikuluetan aurreikusitako moduko merkatu-balioko eragiketen beste balorazio-kasu batzuetan, bi aldeko doikuntza gauzatu behar da ondasunen eskurutzaileren egoitzan (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen Testu Bateginaren 18. artikulua), doikuntza horren aplikazio zuzena egiaztatu behar duen Zerga Administrazioa igorlean balorazioa egin zuena edo beste bat den alde batera utzita. Kasu horietan, ondorioztatzen du Zerga Administrazioko Estatu Agentziak, ez da eztabaidatzen eskudunak gauzatutako egiaztapenaren ondorioak bere gain hartu behar dituen Administrazioak beste Administrazioak gauzatutako egiaztapenean parte hartu behar duen» (Bigarren Alegazioa, 9. eta 10. orrialdeak).

e) «Elkarlanean aritzeko, kontsultatua eta entzuna izateko betebeharra Ekonomia Itunak ezarritako eskumen-banaketaren barnean gauzatu behar da eta, bereziki, bertan ezarritako ikuskaritza-prozedurarekiko eskumen eskusiboa errespetatuta».

f) Jarraian, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 2007ko otsailaren 14an hasitako 1. ERAKUNDEA, S.A. erakundearen zerga-egoera egiaztatzeke jarduerak aztertzen ditu, eta nabarmentzen du, 2014ko azaroaren 20an irekitako hitzarmen-aktan jarraitutako irizpideetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2014ko urtarrilaren 14an igorritako balorazio-proposamena izan dela kontuan. Ondorioz, «Zerga Administrazioko Estatu Agentziak informazioa partekatu du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, azken horren balorazio-proposamena jasotzerakoan eta partzialki aplikatzerakoan, falta ziren dokumentuekin osatzea eskatzerakoan, eta zergapekoarekin adostutako erregularizazio-proposamena jakinarazterakoan». Beraz, «Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren erregularizazioa Gipuzkoako Foru Aldundiak gauzatutako balorazio-proposamenaren ingurukoa izan da, horretatik aspektu jakin batzuk

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2009	A1/2015	2015-06-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Arbitraje Batzordearen R8/2012 Ebazpenaren gauzatze-gertakaria

kenduta. Bere ikuskaritza-eskumenaren arabera, hori ez da Arbitraje Batzordeak aitortutako elkarlanean aritzeko betebeharra haustea».

g) Azkenik, «Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako gauzatze-gertakariaren balorazioari» dagokionez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak nabarmentzen du «Gipuzkoako Foru Aldundiak jasotako kexaren neurrigabekeria», bere ustez, «gauzatze-gertakarian» jasotako adierazpenak ikaragarriak baitira (...). Izan ere, «Gipuzkoako Foru Aldundiaren irizpideak entzuteaz gain, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak merkatu-balio normala zehazteko metodoa ere aldatu du, Gipuzkoako Foru Aldundiak lortutako eta eskainitako laginak aplikatuta». «Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren fede ona bere balorazio-metodoa Gipuzkoako Foru Aldundiarenera egokitzeko aldatu izanarekin eta horri zergapekoarekin sinatutako hitzarmen-akta jakinarazi izanarekin frogatzen da».

h) Zerga Administrazioko Estatu Agentziak bere alegazioak jarraitzen ditu, honako hau nabarmenduz: «Arbitraje Batzordeak ez du inoiz zalantzan jarri Zerga Administrazioko Estatu Agentziak duen ikuskaritza-eskumen paregabea, Ekonomia Itunean gauzatzen den eskumen-banaketaren arabera»; beraz, ezin da onartu, «hitzartutako tresnetan, ikuskaritza-eskumenaren eskusibotasunarekiko inolako salbuespenik ez jasotzea eta (...) hori gatazkaren bidez lortu nahi izatea; izan ere, labur esanda, Gipuzkoako Foru Aldundiaren uziei jaramonik eginez gero, dagozkion araudi-tresnetan jasotzen ez den partekatutako ikuskaritza-eskumena ezarriko litzateke». «Gertakari honen xedea bere osotasunean aztertuta, ondorioztatzen da, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurretik Estatuak eskusiboki gauzatzea adostu den ikuskaritza-eskumena gauzatu nahi duela» (18. eta 19. orrialdeak).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2009	A1/2015	2015-06-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Arbitraje Batzordearen R8/2012 Ebazpenaren gauzatze-gertakaria

i) «Gipuzkoako Foru Aldundiarentzako aurretiazko alegazio-izapidearen existentzia ezari» dagokionez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak adierazten du «aipatutako izapideak ez duela oinarririk inongo arauan, ez eta Arbitraje Batzordearen ebazpen berean ere. Horrek aitortzen du «lankidetzaz horrek ez duela benetan behar prozedura xehaturik». Gainera, «ezerk ez du adierazten Administrazioen arteko lankidetzaz likidazioaren aurrekoa izan behar denik (...). Arbitraje Batzordeak nazioarteko prozedura lagunkoiei egindako erreferentziak pentsarazten digu lankidetzaz ondokoa dela».

j) Gipuzkoako Foru Aldundiak gauzatze-gertakarian duen benetako uzia «Zerga Administrazioko Estatu Agentziak gauzatutako erregularizazioa zalantzan jartzea eta, ondorioz, ez dagokion ikuskaritza-eskumena gauzatzea da, horrek eragiten dion «kalte» ekonomikoan oinarrituta (...). Kontua ez da lotutako eragiketen balorazioan «parte hartzea», baizik eta bere irizpidea «ezartzea», kalterik ez jasateko. Hori da zehazki 8/2012 Ebazpenak (...) saihestu nahi (...) duena: «(...) Antolamendu honen eremuan, ez litzateke onargarria izango, Administrazio batek gai honetan hartutako erabakiak besteak hartutakoen gaintik nagusitzea (...)».

«Kasu honetan, Akta Bakarretatik ondorioztatutako harremanak arautzen dituen «elkarrenganako konfiantzaren printzipioa» ez dirudi Foru Aldundiaren jardueran nagusitu denik; izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziarekiko dituen irizpide-desadostasunak honako hauen ingurukoak dira: (1) Gipuzkoako Foru Aldundiak egiaztatu ezin izan duen aspektu bat (EBITDAren kalkulua) eta (2) irizpide-desadostasuna marketineko gastuen banaketan. Hitz batez, kontua ez da eragiketaren balorazioan elkarlanean aritzeko betebeharra hautsi den, baizik eta ez direla onartu Gipuzkoako Foru Aldundiak defendatutako balorazio-irizpide guztiak».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2009	A1/2015	2015-06-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Arbitraje Batzordearen R8/2012 Ebazpenaren gauzatze-gertakaria

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak bere alegazioak amaitzen ditu, Arbitraje Batzordeari «Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako gertakaria gaitzestea adosteko eskatuz», honako hauetan oinarrituta:

1.- Ez dago oinarri juridikorik Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 2014ko azaroaren 20an 4. ERAKUNDEA, S.A. erakundearekin sinatutako Hitzarmen Akta indargabetzeko, ez eta jarduerak sinaduraren aurreko unera atzeraeragitea agintzeko ere; izan ere, legezketasuna errespetatu da eta, zehazki, Ekonomia Itunaren 2. artikuluan jasotako lankidetzaren printzipioa, 2012ko uztailaren 2ko Arbitraje Batzordearen Ebazpenaren terminoetan.

2.- Ez da egokia Zerga Administrazioko Estatu Agentziari Gipuzkoako Foru Ogasunarekin gai honen inguruko informazioa aktak ireki aurretik partekatzeko betebeharra errepikatzea, ez eta euren desadostasunak fede onez eta lankidetzaren espirituarekin konpontzen saiatzeko betebeharra ere. Izan ere, lehenik eta behin, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak betebehar hori bete du ahal den heinean, Batzordearen Ebazpena kontuan izanda eta, bigarren, Arbitraje Batzordeak ez duelako inoiz ezartzen lankidetzaren horren alde aurrekotasuna».

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean jarritako gatazka amaituta, eta 16/2009 espediente-zenbakiarekin izapidetuta, Gipuzkoako Foru Aldundia berriro aurkezten da Arbitraje Batzordearen aurrean, hori amaitu zuen uztailaren 2ko 8/2012 Ebazpenaren

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2009	A1/2015	2015-06-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Arbitraje Batzordearen R8/2012 Ebazpenaren gauzatze-gertakaria

«gauzatze-gertakaria» aurkezteko. Foru Aldundiaren ustez, «nabarmena da» Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak ez duela bete.

Aurretik azaldutako ekintzak ikusita, argi dago nabarmendu beharreko alde zuzeneko ohar bat: uztailaren 2ko 8/2012 Ebazpenarekin, 16/2009 prozedura amaitu zen, baina ez zen behin betiko konpondu aurrez aurre zeuden bi Administrazioen artean sortutako gatazka, hori baretuta. Zalantzarik gabe, gatazkak bizirik irauten du, eta orain agerian jartzen da, aipaturako Arbitraje Batzordearen interpretazioa eta gauzapena direla eta.

Argi dago Gipuzkoako Foru Aldundiak Zerga Administrazioiko Estatu Agentziarekin duen gatazka edo desadostasuna, 8/2012 Ebazpenaren betearazpena edo gauzatze-modua dela eta. Hala ere, argi dago ere bai, Ekonomia Itunaren xedapenetan zein Arbitraje Batzordearen Araudiaren xedapenetan, ez dagoela Organo honek emandako Ebazpenen aurkako gauzatze-gertakariaren inolako aurreikuspenik eta, ondorioz, ezta halakorik aurkezteko prozedura-biderik, edota konpontzeko Arbitraje Batzordearen eskumenik ere.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiak arrazoiarekin argudiatzen du «Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen ebazpenak ezin direla bete edo ez bete, alderdien nahiaren arabera. Hori hala balitz, erantzen du Foru Aldundiak, zertarako balioko luke Arbitraje Batzordeak?» Eta arbitraje-ebazpen sendoa ez gauzatzeak eta horrek ondorio juridikorik ez izateak asmoen adierazpen sinplea bihurtuko luke hori, zalantzarik gabe.

Erantsi daiteke, Arbitraje Batzordearen erabaki edo ebazpen sendoaren gauzatze eraginkorrean, gatazka irabazi zuen Administrazioaren interes naturalarekin zein, izanez gero, partikular interesdunekin batera, interes juridiko argia dagoela, Ekonomia Itunaren funtzionamendu egokiari lotuta eta, ondorioz,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2009	A1/2015	2015-06-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Arbitraje Batzordearen R8/2012 Ebazpenaren gauzatze-gertakaria

horren erantzule diren Administrazio guztiei eragiten diela. Era berean, lotura estua du fede onaren eta leialtasun instituzionalaren eskakizunekin.

Horregatik, EIABaren 18. artikulua agintzen du Administrazioek Batzordearen ebazpenak gauzatu behar dituztela, «ebazpenean bertan aurreikusitako terminoetan». Nolanahi ere, ebazpen horiei dagokienez, aurreikuspen bakarra dago: «administrazioarekiko auzibideko errekurtsioa soilik izan ahal izango dute, dagokien Auzitegi Gorenaren salan» (Ekonomia Itunaren 67. artikulua eta EIABaren 19. artikulua). Beraz, argi dago Ekonomia Itunak ez duela Arbitraje Batzordearen inolako eskumenik aurreikusi, horrek sendo ebatzitakoa «gauzarazteko», ez eta inolako prozedura-biderik ere, gauzatze-gertakaria aurkezteko.

Bestela esanda, Arbitraje Batzordearen araudi erregulatzailerak bere ebazpenen gauzapena fidatzen die «gatazkan dauden Administrazioei», eta «ebazpenean bertan aurreikusitako terminoetan», horien inguruko gauzatze-gertakaririk egin edo gatazka berriz aurkeztu beharrik gabe, arbitraje-ebazpenaren gauzatzearen edo betearazpenaren ondorioz, bi Administrazioen artean sortutako desadostasunak direla eta.

3.- Hasieratik, bi Administrazio interesdunak bat etorri ziren, gatazkaren arrazoia araudi-hutsunea zela aitortzerakoan eta errepikatzerakoan. Izan ere, «Ekonomia Itunak eta estatu- zein foru-araudiak ez dute aurreikusten hori sortzen duen kasua (...): eragiketen balorazioa, hainbat Zerga Administrazioen ikuskaritza-eskumenaren menpe dauden lotutako erakundeen artean» (OD 10).

Arbitraje Batzordeak ezin dionez ebazteari utzi «kasuari aplikagarriak zaizkion manuen isiltasuna, iluntasuna edo urritasuna direla eta (...)» (30/1992 Legearen 89.4 artikulua), ez eta gatazka sortzen duen kasuaren gaineko araudi-hutsunea dela eta, kasu honetan, ebazteko, Ekonomia Itunaren printzipio orokorretara jo

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2009	A1/2015	2015-06-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Arbitraje Batzordearen R8/2012 Ebazpenaren gauzatze-gertakaria

zuen. Nolanahi ere, ohartarazi zuen «barne-eremuko transferentzia-prezioen doikuntzei buruzko Zerga Administrazioen arteko eztabaiden behin betiko konponketak (...) lege-mailako konponbideak hartzea eskatuko zuela» (OD 10).

Kasu honetan, ez da zalantzan jartzen desadostasuna eta gatazka daudela Estatuko Administrazioaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean, 8/2012 Ebazpenaren gauzapeanaren inguruan. Nolanahi ere, Ekonomia Itunaren zein horren arabera interpretatutako Araudiaren xedapenetatik ezin da ondorioztatu Arbitraje Batzordearen konpontzeko eskumena.

4.- Beraz, egokia da aitortzea Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako gauzatze-gertakariak ez duela izateko arrazoirik. Era berean, Arbitraje Batzordeak ezin du bertan eskatutakoa onartu; izan ere, gatazkan dauden Administrazioek emandako ekintzen berrikuspen-organoa ez denez, ez du Zerga Administrazioako Estatu Agentziak sinatutako hitzarmen-akta balio gabetzeko eskumena, ezta eskatutako jardueren atzeraeragina agintzeko ere. Halaber, Arbitraje Batzordeak ezingo luke legegilea ordezkatu, 8/2012 Ebazpenaren «gauzatze-formularen» bidez, erregulaziorik ez duen administrazio-prozedura zehatza artikulatuta.

HONAKO HAU ADOSTEN DU:

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako gauzatze-gertakariak ez duela izateko arrazoirik.

2.- Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoari jakinaraztea, Administrazio interesdunen eta Arbitraje Batzordearen arabera, barne-eremuko transferentzia-prezioen doikuntzei buruzko Zerga Administrazioen arteko gatazka horien behin betiko konponketak lege-mailako konponbideak hartzea eskatuko lukeela.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2009	A1/2015	2015-06-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Arbitraje Batzordearen R8/2012 Ebazpenaren gauzatze-gertakaria

3.- Hitzarmen hau Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinaraztea.